

EDITORIALA

Europako Konstituzio-ituna ez da guretzat

Europako hainbat gobernu, horien artean Espainia eta Frantziakoa, jo eta ke ari dira itun konstituzionalaren alde lanean; EB osatzen duten 25 estatuek berretsi behar dute indarrean sartuko bada. Herri-tarrak erreferendumerara deituta itun horri bedeinkapen guztiak eman nahi dizkiote gobernu frantses eta espainolak, eta iragarkiz bete zaizkigu kaleak. Dirua erruz xahutuko dute gizartea baiezkoaren aldera erakarri nahian, baina konstituzio-itunaren zinezko edukiak eta helburuak ez dira oso argi geratzen.

Otsailaren 20an izango den galdetara prestatzeko, benetako konstituzioa ez den agiri horren alde Madrillgo gobernuak futboleko izarrak, aktoreak, kantariak eta fama handiko kazetariak fitxatu ditu (bide batez, kanpainak badu Euskal Herrian puntu bitxi bat, ikustekoa baita Luis del Olmo manipulatzailer nagusiaren izenean justizia eta libertatea aldarrikatzea).

Zarata egiteaz haratago, ordea, nork esan dezake arrapaladan eta presaka egindako kanpaina honekin herritarrek itunaren eta bere eraginaren berri zehatza izango dutenik? Benetan botereek ez dute halako interesik; beste aldera izan balitz, ituna egiterakoan parte hartzeko aukera emango zioten jendeari.

ELAk, berriz, konstituzio-itunaren edukia estaturik gabeko herrion eta langile-klasearen kalterako dela iritzita, jarrera ofizialen eta zuzenen kontra egingo du eta ezezko botoa eskatuko du.

Itun santu horrek ez digu geure buruari eman nahi diogun etorkizuna erabakitzeko aukerarik emango, ez eta babes berezirik eskainiko merkatuaren eta botere ekonomikoaren diru-goseari aurre egiteko. Horrela ez da gizartearen eta herritarren beharrianak asetuko dituen elkarterik eratzten. Ez gaude gure aurkako politikak bedeinkatzeko asmotan; guk agiri horri ezetz diogu.

HAU EZ DA GURE EUROPA
OTRA EUROPA ES POSIBLE

ITUNARI
**EZ
NO**
AL TRATADO

El Comité Nacional valora positivamente la aprobación del proyecto de nuevo estatuto para Euskadi

MAYORÍA DEMOCRÁTICA

El Comité Nacional de ELA ha manifestado su valoración positiva ante la aprobación en el Parlamento Vasco, por mayoría absoluta, del proyecto de nuevo estatuto político para Euskadi, que tuvo lugar el pasado 30 de diciembre. En el comunicado difundido tras su reunión del 11 de enero, el Comité Nacional valora la propuesta —en la que destaca el gesto de Sozialista Abertzaleak— no por su contenido y gestión, aspectos sobre los cuales ha expresado sus reservas, sino por el hecho de que con esta propuesta la Cámara reclama un marco jurídico-político que garantice el respeto a la voluntad de la ciudadanía vasca.

El Comité Nacional reclama que, junto con el proyecto de estatuto, se abra un espacio de trabajo en que las fuerzas partidarias de la autodeterminación alcancen un acuerdo de mínimos sobre el futuro de Euskal Herria; exige a ETA el cese de la acción armada; pide al gobierno español que deje las amenazas y la política represiva, se avenga a dialogar, y recuerda que todas las fuerzas políticas deben tener posibilidad de participar en las convocatorias electorales.

(Pág.2)



Fue miembro de la ejecutiva hasta el año 2000

ELA LLORA A JUAN MIGUEL MENDOZA

Juan Miguel Mendoza, que fuera destacado dirigente de ELA durante más de dos décadas, murió el pasado 28 de diciembre a los 59 años de edad, víctima de enfermedad. Deja esposa y tres hijos y un vacío enorme entre los/as que le conocimos.

Nacido en Zarautz, era una persona de gran curiosidad intelectual —economista y perito mercantil— y de una aún mayor humanidad. Su compromiso social y político y sus inmensas ganas de vivir eran contagiosas, y de ello son testigos los numerosos trabajadores y trabajadoras de distintas empresas y rincones de Euskal Herria y el equipo de economistas que se formaron a su lado conformando lo que es hoy el gabinete de negociación colectiva de ELA.

Mendoza siempre estuvo vinculado al mundo sindical y, en concreto, a ELA. Su vida laboral comenzó en Alfa, donde compaginó trabajo y estudios. De allí pasó al sector de la construcción y, finalmente, al sindicato, como liberado. Miembro del Comité Ejecutivo desde finales de los 70 hasta hace cuatro años, ocupó en distintas etapas las responsabilidades de Negociación Colectiva y de Política Industrial.

(Sigue en pág.3)



BATZORDE NAZIONALAREN AGIRIA

LEGEBILTZARRAK ONARTUTAKO ESTATUTU PROIEKTUA ETA ONDOKO EGOERA

Eusko Legebiltzarrak abenduaren 30ean onartutako EA Erako estatutu politikorako proposamen berria eta erabaki horrek sortutako egoera izan ditu mintzagai ELAren Batzorde Nazionalak 2005eko lehenbiziko bileran. Hona hemen zer dioen ELAren Batzorde Nazionalak egoera berria dela eta:

ELAk ozenki aldarrikatzen du Eusko Legebiltzarrak onartutako estatutu-proiektuaren legitimotasuna, erakunde horren araudiak eskatzen dituen gehien-goak eta prozedurak aintzat hartzen baititu. Sindikatu honek badu hainbat kritika eta erreparatu proposamen horren zenbait alderdiri buruz, baita horren kudeaketa politiko eta sozialaz ere, baina horrek inondik ere ez dio aldarrikapen hari indarrak kentzen.

Proposamenak Euskal Herriari erabakitzeke eskubidea bermatzen dion esparru juridiko-politiko exijitzen du, eta ekinbide honek Eusko Legebiltzarraren gehiengo absolutuaren babesa lortu izanari Batzorde Nazionalak bereziki ongi irizten dio. Garrantzi politiko handia du, ELAren ustez, Eusko Legebiltzarraren erabakiak, esparru politiko berriaren ardatza herri-galdeketa jartzen baitu. Sozialista Abertzaleak taldearen ekarpenari ere azpimarratzekoa deritzo Batzorde Nazionalak.

Eusko Jaurlaritzaren proposamena onartu izanak, dena den, ez digu ahaztarazi ez dagoela behar hainbateko adostasunik ekimen horren edukiei eta kudeaketari buruz. ELAk berretsi egiten du aspalditik (Ibarretxe lehendakariak proiektu politiko berria aurkezteko asmoa azaldu zuenetik) aldarrikatzen ari garen eskaria, sindikatuaren XI. Kongresuak ere onartu zuena: autodeterminazio-eskubidearen aldeko indarren arteko gutxieneko hitzarmen bat adostu behar da, eta horretarako lanean hasi.

Prozesuaren edukiei eta kudeaketari eragin behar die hitzarmen horrek, herri-galdeketa ere barne dela, eta lurraldetasunari dagozkion bestelako konpromiso batzuk hartu behar ditu. ELAren iritziz, ezinbestekoa da hitzarmen horrek bere gain hartzea proiektuaren alderdi sozialen garrantzia, baita herritarren partaidetzarena ere.

Ziur da ELAren Batzorde Nazionala proposamenaren garapena (baita bideragarritasuna ere) koloka utziko lukeela hitzarmenik ezak. Hortaz, ELAk berretsi egiten du helburu horien aldeko lankidetzan jarduteko bere erabateko borondatea.

Bestalde, ETAk jarduera armatua bertan behera utz dezala exijitzen du ELAk, beste behin ere, euskal gizarteak ere espero eta eskatzen duen legez. Hau ezinbesteko baldintzatzat jotzen dugu prozesu berriak abiarazteko; halaber, beste indar bat eman diezaieke abenduaren 30ekoaren moduko ekimenei.

Espainiako indar politikoei dagokienez, espero zen erreakzioa izan dute, oro har, estatutu-proposamen berria dela-eta: erabat gaitzetsi dute proposamena, mehatxuka hasi dira, zalaparta handia ateratu dute

● *ELA valora que la mayoría del Parlamento exija un marco jurídico-político que reconozca al pueblo vasco el derecho a decidir, y destaca la aportación de Socialista Abertzaleak.*

● *Esta iniciativa parlamentaria debe completarse con un acuerdo de mínimos entre las fuerzas que defienden el derecho de autodeterminación.*

● *El acuerdo de mínimos debería asumir la importancia de la dimensión social del proyecto y de la participación de la sociedad en su gestión.*

● *La acción armada de ETA debe cesar; esta es condición necesaria para el desarrollo de nuevos procesos.*

● *ELA apela al Gobierno español para que deje las descalificaciones globales y las amenazas; una salida democrática es posible, y vendrá del diálogo y la distensión.*

● *La legitimidad democrática del sistema queda en entredicho mientras no se garantice a todos los sectores el derecho a participar en las elecciones.*

komunikabideetan... Denetarik egin dute, beraz, egin behar luketena izan ezik: egoera objektibotasun eta borondate demokratiko apur batekin aztertzea, alegia. Nafarroako Gobernuak ere bide horretatik jo du, kanpaiak beste inork baino ozenago joz gainera. Hitz potoloz gaindi, erreakzio horiek arduragabekeria eta miseria politikoa besterik ez dute adierazten.

Hala eta guztiz ere, aukera berriak eskaini ditzakeen egoera honetan, Batzorde Nazional honek erantzukizunez jarduteko eskatzen dio Espainiako Gobernuari, uste baitugu beharrezkoa eta bidezkoa dela euskal auziari konponbide demokratikoa ematea. Ezezko biritilak, gaitzespenak, "indarrean den legedia" eta Estatuaren nagusitasuna ezartzea ez dira biderik egokienak arazoari ekiteko, are gutxiago eskari politikoak herritarren eta haien ordezkarien gehiengo oinarri izaki. Elkarrizketa eta negoziazioaren bidetik, hitzezko eta egitezko distentsiotik etorriko da konponbidea.

Espainiako Gobernuak aldatu beharra dauka egungo politika errepresiboa: euskal preso sakabanatzea, espetxe-politikaren eta zigorren gogortze arbitrarioa, indarkeriaren inongo loturarik ez duten jardura politiko eta sozialen kriminalizazioa, fiskalen neurritz kanpoko eskariak, torturak... Gizakien oinarrizko eskubideak zanpatzen dituen errepresio-politikarako Estatuaren baliabideak erabiltzea zuzenbide-estatu beraren aurkako da erabat.

Sektore politiko jakin bat legez kanpo edukitzeak ere adierazten du zenbateraino gutxiesten dituen Estatuak oinarrizko eskubide eta askatasunak. Zalantzan dago sistemaren eta bere erakundearen legitimotasun demokratikoa harik eta sektore eta proiektu politiko guztiei hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea bermatu arte. Horregatik, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen atarian gauden honetan, premiazkoa da proiektu eta sektore politiko guztiek hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea izatea.

Azkenik, ELAren Batzorde Nazionalak:

- **Berretsi egiten du Euskal Herriko herritarrok gure etorkizunaz libreki erabakitzeke dugun eskubidea.**
- **Adierazten du normaltasun politikoa behar duela gure herriak, eta baduela horretarako eskubiderik. Halaber, gatatzak elkarrikeria eta negoziazioaren bidez gainditi behar direla uste dugu.**
- **Indarkeria eta jazarpenera bertan behera uzteko exijitzen du.**
- **Errepresioa eta eskubideen urratzea oinarri dituen estrategia politiko, judicial eta espetxeetako alde batera uzteko exijitzen du.**
- **Berretsi egiten du autodeterminazio-eskubidearen aldeko indarren arteko gutxieneko hitzarmena adosteko borondatea.**

ELA LLORA A JUAN MIGUEL MENDOZA

Entre otros logros, fue uno de los precursores del acuerdo sobre el empleo en el Consejo de Relaciones Laborales, del contrato de relevo y de la EPSV GEROA.

A principios de 2000 Juan Miguel Mendoza abandonó sus responsabilidades en ELA para ser nombrado vicepresidente ejecutivo de la entidad de previsión social voluntaria Elkarkidetzeta.

La muerte de Juan Miguel Mendoza deja una huella profunda y una enorme tristeza entre todos los hombres y mujeres que componemos ELA. Es, por méritos propios, protagonista de excepción en la historia de nuestra organización y de la lucha obrera de este país.

ELA rindió a Mendo un sencillo homenaje tras su funeral. Los bertsoz de Gorka Ojanguren, militante de Bea-

sain; las intervenciones de Joseanton Zestona y Amaia Aldasoro, glosando su figura, la música de los txistularis, el aurreku de honor a su familia y a sus cenizas y la emoción contenida de los allí presentes fueron la mejor manera que encontramos para rendir honores a alguien que se ha ganado un lugar en nuestro recuerdo y nuestros corazones. Agur, adiskide.

Mendo gogoan

Juan Migel Mendoza adiskidea joan zaitu. Gizon on batek utzi gaitu. Badakit Juan Migel hori baino gehiago ere bazela: buru argia, jakinduria entziklopedikoa zuena, euskal errealitatearen alderdi ezberdinak ongi aski eza gutzen zituen, euskal ekonomia eta enpresen ehunari inork baino erradiografia zehatzagoa egindako aditua, egoera zailenei ere irtenbidea emateko estrategiak bilatzen zekiena, langile porrokatua, gazte-gaztetandik bere herriarekiko eta langile-klasearekiko konpromisozuen militantea. Hori dena izanik, guztiari balio berezia ezarri dio Juan Migelen gizatasunak, eskuzabaltasunak eta jendearekiko hurbiltasunak.


ELAk asko zor dio Juan Migel Mendozari. Garai ilunetan Pako Makazaga Zarauzko zaharraren eskutik Juan Olaskoaga ahantzinezinarekin batera sindikatua berreraikitzeko lanari ekin zionetik, itzela izan da Juan Migelen ekarpena, bera izan baita ardurarik orokorretan bezala, lantegiz lantegi eta herriz herri garatutako lanean ELAren proiektuaren zutoin sendoenetarikoa. Azken urteak Elkarkidetzan eman ditu lanean, oso gertuko zuen alorrean, negoziazio kolektibolari lotutako aurreikuspen sistema osagarrien eremuan, alegia. Bestalde, bere ibilbide sindikalean zehar herri honi ere asko eman dio Mendozak, eta oso une latzetan, gainera.

Adibidez, inoiz ez dugu ahaztuko industria gainbehera zihoala, euskal gizarteak erabat zerbitzu-ekonomiara jo behar zuela esatea modan jarri zen hartan, Juan Migel Mendoza izan zela arinkeria hori salatzen lehena. Mendozak zioen legez, gure herriak etorkizunik izatekotan industriak ekonomia-aren beste sektoreen oinarri gisa jarraitu behar zuen; hartara, ezinbestekoa irizten zion berrindustrializatzeko politika ekiteari. Denboraren joanarekin argi geratu da arrazoa zenbateraino izan zuen.

Mendoza, esan bezala, gizon xehea izan da, herrikoa, aukera hori propio egin zuelako. Ez zion bere klaseari inoiz uko egin, inoiz ez zituen herrian zituen sustraiak galdu. Burua datuz eta jakintzaz ondo hornituta eta oinak herri xehean bermatuta zituen.

Hain maite izanik, gozatzen jakin izan duen bizitzak ez dio merezi zuen aukerarik eman; aldeztetik kendu digu. Jaso beza, behintzat, dagoen lekuan dagoela, gure esker ona eta omena. Gure dolumina adierazi nahi diegu ere bidaia honetan hain bidaide kuttuna izan duen Maritxuri eta senitarteko guztiak.

German Kortabarria



Egindakoagatik,
emandakoagatik,
erakutsitakoagatik,
betirako zordun-
galtzuz

BIHOTZ-BIHOTZETIK



Varias generaciones de militantes de ELA se juntaron en Zarautz para rendir un sentido homenaje público a un gran sindicalista, abertzale y persona y mostrar su respeto a la familia. Adiorik ez, Mendo!



Agur eta ohore, Juanmiguel



"Bazekiat, Juan Migel, ekitaldi hau ikusita ez hintzela batere eroso egongo. Ze omenaldi ta ze kristo... egingo huke purrustada.

Eskerrak egindakoagatik, Juan Migel. Lan eta lan aritu haiz, ordu-rik gabe, nekerik gabe, aitzakiarik gabe... Eskerrak emandakoagatik, asko eman baitiguk. Hire adiskidetasuna, hire eskuzabaltza, hire laguntza eta babesa inork behar izan duen bakoitzean...

Eskerrak, Juan Migel, erakutsitakoagatik. Lezio onenak, neuretzat behintzat, bizitzaren filosofiaz, zentzuaz, baloreetaz emandakoak izan dituk. Maisua izan haiz gauzen benetako balioa neurtzen, zer den eta zer ez den garrantzitsua bereizten: herria, herriko jende xehe, langilea, lagunak, eta, noski, familia...

Hitz bi Maritxurentzat: Juan Migelek oso maite izan zaitu; zuk badakizu, noski, baina guk ere badakigu zerbait, maitasun hori antz ematen zitzaizolako. Bide-lagun ezin hobea izan zaitu. Gure omenaldia, zuretzat ere."

Gizon xehea eta zintzoa izan zinen zu aurrena, nahiz eta gutxi izan halako jakituri nabarmena. Sustraiak eta ideiak ondo erroturik zituena herrian eta herriarentzat lana egiten zuena guztiagaitik jaso ezazu herritarron onospena.

Hainbat lekutan burutu arren bere lan edo jarduna, txoko denetan aurkitzen zuen lagunak gertutasuna; beste ezer ez ez zuen behar hori zen bere fortuna. Ez dugu erraz ahaztuko, ez, erakutsi zeniguna: Gauza txikiak azaltzen dute gizonen handitasuna.

Gorka Ojanguren

Adiskidetan aberats

Amaia Aldasoro ekonomilariak Mendozarekin hamar urtez negoziazio kolektiboko bulegoan lan egin zuen. Berak, bertan bildutako ia guztiok bezala hunkiturik, zenduaren gizatasuna azpimarratu zuen; Mendozarentzat, Aldasorok gogoratu zuenez, zoriona familiaren ongizatean eta Euskal Herriko edozein tokitan adiskideak zituela jakitean datza. Mendo guztiontzako eredu izan genuen, eta izango dugu.



FERNANDO IRAETA, DIRECTOR DE LA FUNDACIÓN MANU ROBLES-ARANGIZ

APOYAMOS LA NUEVA LABORANTZA GANBARA

extender nuestro campo de actividades a Iparralde, teníamos intención de ser un referente de colaboración abierto a cuantas personas y movimientos compartiesen planteamientos de progreso social y respeto a la voluntad de la ciudadanía vasca. La Laborantza Ganbara es también nuestro proyecto y por esto nos hemos implicado en su puesta en marcha.

consideradas en el marco de los Pirineos Atlánticos; se toman, por tanto, en Pau. Los problemas de Lapurdi, Behe- nafarroa y Zuberoa se diluyen, por lo que la actual Cámara Agraria no contesta a las demandas de los baserritarros vascos. A la vista de que la demanda de una Cámara Agraria propia recibía siempre el no por respuesta, nació la idea de crear una Cámara Agraria alternativa para Ipar Euskal Herria.

llo local... son los objetivos de la Cámara de Agricultura Alternativa.

–Los sindicatos de Hegoalde han apoyado la Cámara.

–ELA, LAB, EHNE, HIRU, EGAS, ESK y STEE-EILAS han reafirmado su adhesión a este proyecto y han lanzado una campaña de apoyo económico en la que invitan a colaborar y participar a los/as trabajadoras para que ofrezcan sus aportaciones (ver abajo).

Además de las razones expuestas, desde el punto de vista de la identidad colectiva vasca, el proyecto de Cámara de Agricultura es un ejercicio de autodeterminación, una forma de construir país, que desarrolla un modelo económico exportador de solidaridad, y no de proyectos empresariales depredadores destinados a jugar en la rapiña organizada por el neoliberalismo.

–También hay un problema de modelo agrario...

–Sí, la Cámara Agraria Alternativa quiere hacer frente a las políticas agrarias neoliberales, impulsando la creación de empleo, respetando el medio ambiente y produciendo alimentos de calidad. Rechazando el modelo industrial e intensivo de producción, la Cámara de Agricultura Alternativa quiere demostrar que la agricultura de Euskal Herria tiene otras posibilidades.

El respeto por el medio ambiente, el empleo, la calidad de los alimentos, la autonomía del baserritarra, el desarro-

**Laborantza Ganbarari
laguntza emateko kontua /
Cuenta para ayudar a la
Laborantza Ganbara:
Euskadiko Kutxa
3035 / 0178 / 18 / 1780017903**

El sábado día 15 se inaugura la sede de la Euskal Herriko Laborantza Ganbara en la localidad bajo-navarra de Ainhize-Monjolose, en una casa que la Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua ha puesto a disposición de este proyecto. Fernando Iraeta, director de la fundación, nos explica la iniciativa.

–¿A qué se debe esta decisión?

–Cuando el año pasado decidimos

–¿Cuándo empieza el proceso?

–La reivindicación de una Cámara de Agricultura para Ipar Euskal Herria cuenta ya con varios años; y si bien inicialmente fué una idea del sindicato agrario ELB, en la actualidad es una reivindicación de la mayoría social representada en la plataforma Batera.

–¿Por qué se quiere crear una cámara nueva?

–Las decisiones que conciernen a la agricultura de Ipar Euskal Herria son

gai honen inguruan XI Kongresuan onartu zuen adierazpena berretsi zuen, "oso larria dela komenentzia politikoak pertsonen eskubideen gainetik jartzea" azpimarratuz. ELAren hitzetan "euskal gizartean bizi dugun egoera tenkatua, gatazka eta sufrikarioa areagotu" egiten du sakabanatze politikak.

● Siete jornadas de huelga en Osakidetza

Los sindicatos ELA, SATSE y SME han convocado siete jornadas de huelga en los distintos hospitales gestionados por Osakidetza. Las primeras jornadas de paro tendrán lugar los días 17 y 24 de febrero y las restantes los días 3, 10, 15 y 17 de marzo. Las protestas culminarán con una jornada de huelga en todo el sector el día 22 de abril. Los sindicatos exigen a la dirección de Osakidetza que abra un proceso negociador en el que se recojan aspectos tales como la ordenación de la tabla salarial, la recuperación de la pérdida del poder adquisitivo y la disminución de la jornada para los mayores de 55 años.

● Nuevo contacto en Caballito

La pasada semana representantes del comité y de la dirección de Caballito mantuvieron un encuentro en

el que se fijaron las bases para una nueva reunión que, probablemente, se celebrará en los próximos días. Los huelguistas exigieron la readmisión de los despedidos y la vuelta a la normalidad como paso previo al inicio de las negociaciones del plan industrial elaborado por una consultora externa y que recoge una importante reducción de la plantilla actual. Se cumplen más de 13 meses desde inicio de este conflicto y los huelguistas siguen acampados frente a las instalaciones de la empresa en el polígono Jundiz de Gasteiz.

● Convocan más paros en la residencia Uribarri de Durango

El personal de la Residencia Uribarri de Durango ha fijado los días 23 y 24 de Febrero para realizar dos nuevos días de huelga y una manifestación en Durango el día 25. Además, ha concretado la concentración que el próximo día 28 se realizará ante el palacio Foral en Bilbao a las 11 horas, convocando para facilitar la asistencia de las trabajadoras tres horas de paro de 10 a 13 horas. Todos los jueves, se vienen concentrando en Durango, en este caso en el Pórtico de Sta. María.



● No a la apertura en festivos

Durante el periodo navideño se han sucedido las movilizaciones en contra de la apertura de los comercios en festivos; este domingo, día 16, culminan con una manifestación en Bilbao. Respaldo las diversas convocatorias de los sindicatos ELA y LAB, centenares de trabajadores del sector ha protagonizado concentraciones en la gran mayoría de los centros comerciales, ante la amenaza de que pudieran abrir sus puertas en estas fechas, lo que no ha sucedido debido a la presión sindical. Las movilizaciones han culminado este domingo con un manifestación en Bilbao a la que se han adherido diversas asociaciones de comerciantes y sindicatos.

● Presoen sakabanatzearen aurka

Etteratek eta presoen eskubideen aldeko beste hainbat taldek aurtarrilaren 8rako sakabanatze politikaren aurka deitu zuten manifestazioarekin bat egitea erabaki zuen ELAko Batzorde Eragileak. Lehenagotik

ELA **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00
www.ela-sindikatu.org

**Franqueo concertado
nº 08/207**